

2016KO MAIATZAREN 10EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.
Manuel Muñoz Morentin jn.
Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.
Zuriñe Sáenz Sáenz and.
Mikel Herrador Iriarte jn.
Juanjo García de Acilu Pérez jn.
María Asun Quintana Uriarte and.
Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko maiatzaren 10a izanda, hemeretziak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2016ko apirilaren 5eko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
49	2016/03/31	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
49-B	2016/03/31	AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONESPENA
50	2016/04/05	OBREN LIZENTZIA EMATEA SUBIDA AL FRONTON K. ERAIKINEAN BERRITZE OBRAK EGITEKO
51	2016/04/06	2016 BERDINTASUN DIRU-LAGUNTZAN PARTE HARTZEA
52	2016/04/06	HOBARIAK EMATEA IBILGAILUEN ZERGAN
53	2016/04/08	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
54	2016/04/08	OBREN LIZENTZIA EMATEA MAYOR KALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
55	2016/04/09	OBREN LIZENTZIA EMATEA LA CRUZ KALEAN ESTALKIA KONPONTZEKO
56	2016/04/10	OBREN LIZENTZIA EMATEA MAYOR KALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
57	2016/04/11	KIROL ZONALDEA URBANIZAZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO ESLEIPENA
58	2016/04/14	ALKATEAREN FUNTZIOAK ESKUORDETZEA
59	2016/04/14	HIRURTEKOAREN ONESPENA
60	2016/04/14	OBREN LIZENTZIA EMATEA POTRO KALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
61	2016/04/14	KREDITU-ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN ONESPENA

62	2016/04/15	KREDITU-ALTZATZEKO ESPEDIENTEAREN ONESPENA
63	2016/04/15	OBREN LIZENTZIA EMATEA LA BERGUILLA KALEKO LURZATIAN ITXIERA BERRIA EGITEKO
64	2016/04/15	LIZENTZIA EMATEA 869,871 ETA 872 LURZATIAK BEREIZTEKO ETA ELKARKETA EGITEKO
65	2016/04/19	UDAL IGERILEKUEN ESLEIPENA
66	2016/04/19	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
67	2016/04/20	OBREN LIZENTZIA EMATEA MAYOR KALEAN BARNE LANAK EGITEKO
68	2016/04/20	OBREN LIZENTZIA EMATEA 4 POLIGONO 742 LURZATIKO HORMA KONPONTZEKO
69	2016/04/21	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
70	2016/04/21	KREDITU-ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN ONESPENA
71	2016/04/26	AFAKO KULTURA DIRU-LAGUNTZETAN PARTE HARTZEA
72	2016/04/26	HILEROKO ORDAINKETA-BIDALKETA ONESPENA
73	2016/05/05	2016KO MAIATZAREN 10EKO OSOKO BILKURA DEIALDIA

Quintana andreak 57. zenbakikoagatik interesa azaldu du, eta galdetu du esleitu den, eta nori.

Alkate andreak adierazi du Javier Lizaso arkitektoari esleitu zaiola, eskaintza onuragarriena izateagatik eta egin beharreko zereginak hobeto ezagutzeagatik.

3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Kanpezuko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana 2016-2018 ikusirik.

Esandako plana egiteko 2015eko maiatzaren 19an Emakundek emandako diru-laguntzan onartutako konpromisoak ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Kanpezuko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana onartzea.

BIGARRENA.- Akordioaren berri Emakunderi ematea dagokion prozedura egiteko.

3.- KANPEZUN KULTURARTEKO ELKARBIZITZARAKO I. UDAL PLANAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Kanpezuko Kulturarteko Elkarbizitzarako I. Plana 2016-2018 ikusirik.

Esandako plana egiteko 2015eko uztailaren 14an Arabako Foru Aldundiak 141/2015 Foru Dekretu bidez emandako diru-laguntzan esandako plana egiteko onartutako konpromisoak ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Kanpezuko Kulturarteko Elkarbizitzarako I. Plana onartzea.

BIGARRENA.- Akordioaren berri Arabako Foru Aldundiari ematea dagokion prozedura egiteko.

5.- KANPEZUKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAGATIK HITZARMENAREN LUZAPENA ONARPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Etxebizitza komunitarioa kudeatzeko eta mantentzeko Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Kanpezuko Udalaren arteko 2016 ekitaldirako Lankidetzata-hitzarmen-proposamena ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Etxebizitza komunitarioa kudeatzeko eta mantentzeko Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Kanpezuko Udalaren arteko 2016 ekitaldirako Lankidetzata-hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Akordio hau Arabako Foru Aldundiari helaraztea, akordioa sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena udal kontu-hartzaileari helarazi, kontabilizatzeko.

6.- ETXEBIZITZA SOZIALA ALOKATZEKO ESLEIPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Alkatetzak aditzera eman du etxebizitza soziala alokairuan emateko iragarkian jasotzen diren baldintzak betetzen dituen eskaera bat aurkeztu dela.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak Legearen 21. artikuluan gai honi buruz arautua dagoena ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Baldintza guztiak betetzen duenez, Subida al Castillo, 6-1.B helbideko etxebizitzaren alokairua eskatzaileari esleitzea.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunari eskatzea deialdian ezarritako baldintzak bete, eta dagokion kontratua sina ditzan.

HIRUGARRENA.- Alkate andreari ahalmena ematea dagokion kontratua sina dezan.

7.- ESPAZIO PUBLIKOEN EDO LOKALEN ERABILERA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA, EGOKIA BADA.

Alkatetzaren ekimenez, espazio publikoen eta lokalen erabilera arautzen dituen ordenantza aldatzeko behin-behineko onarpena egiteko egindako espedientea ikusirik.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16tik 18rako artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumeneko 22 eta 47 artikulua ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Erabilera eta espazio publikoak eta udal ondasunak arautzen dituen ordenantza behin-behinean onartzea.

BIGARRENA.- Behin-behineko onarpenaren Akordioa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan jendaurrean jarri, interesadunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean egon den tarte igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak erantzunez.

Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

LAUGARRENA.- Behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa-, eta aldaketen testua oso-osorik argitaratuko dira ALHAOn

ERANSKINA

3.2 Artikulua

Kultur Etxeko eta Udaletxeko instalazioak zabalik egon ohi diren ordutegian erabiliko dira lehenatasunez. Ordutegi horretatik kanpo, 50 euro gehituko dira eguneko eta bilerako.

4.2 Artikulua

Prezio publikoa ordaindu beharraren salbuespena deklaratu ahal izango da onura publikoko arrazoiak daudenean. Onura publikoko arrazoiak egongo dira eskaera udalerrri honetako kultura edo kirol elkarte batek egiten badu, baita erroldatutako pertsona fisikoak haren izenean edo administrazio publikoren batek, betiere egin nahi den jarduerarengatik ez bada kobratzen ez sarrerarik ez inskripziorik. Dena dela, eskaerarekin batera egingo den jardueraren kartela aurkeztu behar dute, Udalaren logoa jarrita, laguntzaile moduan.

8.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura zinegotziak, azaldu du apirilaren 7an Agua y Jardín enpresari esleitu zaiola igerilekuen kudeaketa, eta hilabeteko abonuari dagokionez, zehaztu da data batetik bestera egingo dela.

Kuadrillako turismo mahaian, kideak ez izan arren, parte hartzeko gonbita jaso dute, eta Udalak proposatutako diru-laguntzak aurkeztu zituzten.

Apirilean, AFAn Kultura diru-laguntza aurkeztu zen Araba Camper polikiroldegiko ondoko horma murala margotu ahal izateko.

Azaldu du udal web-orrian euskara zerbitzuari buruzko atal berria dagoela.

Maiatzean zehar egindako diren bestelako jarduerak azaldu dira.

Liburutegian 8.000 liburu baino gehiago informatizatu dira, 6 hilabetetan kontratatatu den langile bati esker.

Ludotekari dagokionez, maiatzean bukatuko da begiralearen kontratua; hortaz, data horretatik aurrera, erabiltzaileek materiala zaintzeko ardura izango dute.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, azaldu du kontsultategiaren inguruan ari direla izapideak egiten Jabetza-Erregistroarekin eta Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailarekin.

Erretiratuei lokalaren lagapenari buruz, ostiralean egongo den bilerara joango dela eta egoera aztertuko dutela.

Ostiralean, 18:30etan kultur-etxean "Neskatoak" dokumentalaren emanaldia izango da, Lamingorriak taldeak sustatuta.

Ekainaren 1a eta 2an, arratsaldeko 16:30etik 18:30era kultur-etxean adinekoentzat erorketak prebenitzeko tailerrak izango dira.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du lokalaren gaian zer da adinekoek eskaintzen zaiena.

Zinegotzi andreak azaldu du lokalaren erabilera baladintzak direla.

Quintana andreak aipatu du egokitzeko beharra dagoela, eta noiz egindo zen galdetu du.

Muñoz jaunak erantzun du datorren urtean izango dela, baina lanaren zati handia egina badagoela.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, hurrengo astearean, hilak 17, arratsaldeko 18:00etan, egingo den bilera aipatu du.

Aterpetxearen proiektuan, dagoeneko eskatu diete teknikariei memoria txiki bat egiteko gastuaren kalkulua jakiteko, 430 eta 460 mila euro artekoa izango dena. Kuadrillari eskatu zaio bideragarritasun-txostena AFari eskatzeko. Hurrengo bilkuran aurreratzeko asmoa dute hainbat diru-laguntzetan parte hartu ahal izateko.

Edorta Lamoren lizentziari buruz, dagoeneko martxan badagoela aipatu du.

Ikastolari buruz, udalaguntza diru-laguntza deialdia esleitu da, eta aurkeztutako diru-laguntza guztiak jaso dira. Hortaz, zeregin bat osotasunean diruz lagunda, sotoarena, aldiz, %50eko diru-laguntza izan du; horri Ereineko diru-laguntzak gehitu behar zaizkio.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du egituraren azterketa egingo den.

Erantzun du beharrezkoa den egitea.

Gehitu du sukaldeko matxuraren arrazoia gaizki egindako obretan izan dela.

Ikastolak egin duen eskaera aurkeztu du, ikastolako jai dela eta Lomcerik ez bandera Udaletxearen balkoian jartzeko.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du langabezia tasaren bilakaeraren datuak ezagutzen diren, baita Arabak daukanarekin alderatuta.

Amaitzeko, Zinegotzi jaunak apirilean aurrekontuaren betearazpen datuak azaldu ditu.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotziak, azaldu du Foru Plana osatzeko bilera izan duela, baita aterpetxea egiteko bideak aztertzeke; baita Hazi, Basquetoru eta Izki LGEarekin ere.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuarekin elkartu da udalerrian hobekuntza lanak egiteko aukera aztertzeke.

Aurreko ostegunean, AFAk egiten ari den Ibilbideak-Bide Berdeak proiektua aurkeztu zuten, PTS barne, hainbat lan aurreikusten dira Antoñana, Berguillan, Laminoriako tunelean eta Musituko errepidean.

Arabarrak eskatu du etxebizitza tasatuen araudia aldatzeko, eman gabe daudenak banatzeko.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du hori egingarria den.

Alkate andreak adierazi du, posiblea bada hurrengo bilkuran aurkeztuko dutela.

Aipatu du Palestinako herriari babesa azaltzeko jardunakdiak antolatu direla eskualdeko hainbat pertsonak antolatuta, hainbat emanaldi aurrakusten dira, baita hurrengo bilkuran mozioa aurkeztea ere.

7.-ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten, ez da eskaerarik egon.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak laurden gutxitan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.